



OÑATI
dabilen herria

2019ko aurrekontuak

Udal gobernuaren proposamenak proiektu estrategikoak biltzen ditu

Oñatiko Udal Gobernu taldeak 2019ko Aurrekontu proposamena helarazi dio iada ,oposizioan dagoen EAJ Udal taldeari. 22.151.000 Eurotako aurrekontua da 2019rako Udal Gobernuak proposatu duena. Aurrekontu orekatua da sarrera/gastuei dagokienean, 612.000 Eurotako aurrezki arrunta aurreikusten delarik.

Inbertsioei dagokienean Oñatiko herritarrentzat estrategikoak diren proiektuen azterketa eta lanketa fasea burutu ostean, orain exekuziorako fasean sartzea dagokigu. Horretarako oinarri sendoa dugu. Izan ere, azken urteetan egindako kudeaketak Udala egoera ekonomiko sendo batera ekarri du. Hor kokatzen ditugu Kiroldegiaren eraberritzea eta Olaiturriko proiektua.

Proiektu aipagarriak:

PARTIDA	KOPURUA
Kiroldegia	2.500.000
Olaiturri	1.000.000
Olarako irisgarritasunerako exekuzio proiektuak	30.000
San Lorentzoko 9. areako irisgarritasun lanak	240.000
Mendiko kaleren eraberritzea	200.000
Herritarren Arreta Zerbitzua	150.000
Araotzeko ostatua	250.000
Partaidetzazko aurrekontuak	250.000
Plazako kioskoaren proiektua	20.000



OÑATI
dabilen herria

Gastuari dagokionean, aipagarria da **Ongizate Zerbitzuen** alorrean, gizarte larrialdietarako diru laguntzak eta laguntza psikosoziala (drogomenpekotasuna eta beste hainbat arazo artatzeko laguntzak) indartu egin ditugula.

Azken urteetan **zerbitzu publikoen alde egindako apustuari** jarraiki, Udala eta herritarren arteko zerbitzua eta harremana hobetzeko HAZ zerbitzua zabalduko du Udaletxeak. Herritarrari zerbitzu integrala eta gertukoa eskainiko dion bulegoa hain zuzen.

Bestalde, aurreko agintaldian **Berdintasun** departamenduaren sorrerarekin abiatutako ildoare gehiago indartuko da Berdintasun teknikari plaza konbokatzearekin.. Emakume kontseilua, Jabekuntza Eskola...Udal Gobernuak apustu sendoa eta estrategikoa egiten du bide honetan.

Mugikortasuna ere lerro estrategiko argia izan da Udal Gobernuarentzat eta herriko oinezko eta bizikletadunei zuzenduriko sarean hobekuntzak egiteko konpromisoa berresten da. Esfortzu handia egin du Udalak azken urte hauetan herriko bidegorri sarea osatzen eta oso emaitza onak eman dituela baloratzen dugu. Lan guztia borobiltzeko “**Oñatiko Gerriko Berdea**” formalki izendatu eta katalogatzea geratzen zaigu 2019rako.

Landa eta Inguruneari dagokionez eta zehazki Basogintzak egun bizi duen inflexio puntuan, herriko errealitatea ahalik eta modu zehatzenean aztertuko dugu. Sentsibiltate eta interes ezberdinak kontuan hartuz baso jabeekin elkarlan markoak bilatuko dira.

Bukatzeko, Udal Gobernu Taldeak zorionak eta esker ona helarazten die **Parte Hartzezko Aurrekontuen** lanketan modu aktiboan eragin duten ehundaka herritar eta Udal langileei. 2019 eta 2020ko aurrekontuetan 500.000 euro zuzenduko dira herritarrek proposatu eta aukeratutako egitasmoentzat.